

JUDITH VANISTENPAEL - MARK BELLIDO




SALTO


Euskarazko edizioa



ASTIBERRI

Biharamuna, goizeko 6ak.





Ondo da, "mutiko"... Badira hor zehar uste dutenak neskak ez dugula honetarako balio. Lehen eguna duzu gaur, ezta?



Horren nabarmena da ala?



Non ikusi da bizkartzain bat guardasolaz! ESKUAK LIBRE! Eta euria badago, IZORRAI.



Soldata ez da mundiala, eta zu prestatzea ez da horretan sartzen. Baina nire % 50 zara, taldearen erdia, eta ikasten ez baduzu, neure larrua dago jokan.



Ez dakit ze ostia irakatsiko zizuten titulua lortu duzun sasi akademia horretan...




...baina hemen kontua da hil nahi gaituztela, eta nik ez dut inongo hiletatara joan nahi...



ez pinuzko kutxa baten barruan, ez kanpoan.



Hasteko, begiratu ea
segika ditugun. Kontua ez da
firoka edo Bruce Lee moduan
borrokan hastea. Pistola atera
behar EZ izatea da
kontua.



Hil nahi
gaituztela esan
duzu? Jomuga
TANGO 55 hori zela
uste nuen...

Hara bestea...
Zer uste duzu,
babespekoa akabatu
eta guri ARROSA BAT
oparituko digutela?

Pakete berean
gaude. Zerbaitek BUM!
egiten badu...

..pintzekin
jasoko gaituzte
guztiok.

Bikaina, hasiberriak
adoretzeko...

Bizirik
jarraitu nahi
dut...





Hemen da.
Zuk gidatu.



BAINA ez dut hiria
ezagutzen! Nora goazen
ere ez dakit...



ETAk mehatxatuta dago.
Hil egin nahi dute, ulertzen? Ez
da fidatuko inoiz ikusi ez duen
morroi batez...



Nik lagunduko diot,
eta zuk, gidatu.
Autoa zuretzat. Ze...
gidatzen badakizu,
ezta?



Hamabost urtetan,
istripurik ez.





Ondo... Gidatu BETI ezkerretik, eta geratzen zarenean, ziurtatu baduzula ihesbide bat. Badakizu: beti ezkerretik, eta motorra piztuta. Eta ahaztu uhala. Tranpa hutsa dira...



Gainerakoa, nire kontu.



EZ GERATU HOR, NIRE IPURDIARI BEGIRA



Sartu autoan, eta itxaron. Gogoratu: motorra piztuta.

Ordu erdi barru, bagoaz.




A! Eta gorde guardasola maletategian.



Edo estropezu egingo duzu unerik txarrenean.

Jainkoarren ...

Hau da hau!



Dena garbi.
Edukiontzia, paperton-
tzia eta eskaierak.

Orain, itxaron
behar. Zerbait
susmagarririk?

Esku-argi bat
zeraman neska bat
ikusit dut, hor euripean,
zaborretan arakatzan.



Hara, motel! Goizeko
zortziak dira, eguraldi txakurra
dago eta ez dut batera kaferik hartu.
Beraz, ostia gutxi nirekin...




OK, lasai.
Mezua jasota.



Tango 55 nor den
galde dezaket?



Azkenik, zentzuzko
zerbait.



Tango 55: javier, 67 urte, eta hemendik
50 km-ra dagoen herri bateko alkatea.
Erretiratuta dago, eta hori putada bat da
guretzat: denbora gehiegi patxaramerako.



Hots, orduak
eta orduak
tabernetan.

Alergiarik ez,
guk dakigunik, eta B negatibo
odol-taldekoa da.

...B
nega-
tibo.

ZER OSTIA
ARI ZARA?!!
Isilreko informazioa da!

Eta papera
galdu eta beste
norbaitek topatuz gero,
zer?

Egunero ikusiko
duzu. ASPERTU
egingo zara ikusteaz.

jabetuko zara
arian-arian.

Dei egingo diot. Berak
eten arte itxarogo dut.
Hori da seinalea jakin
dezan hemen gaudela
eta irten daitekeela.

Autoan sartu orduko,
ZIZTU BIZIAN
abiatu.

ARGI
DAGO?





Ez. Hala esaten zidaten herrian, Valentzian. Baina andaluza naiz.



Aholku bat: disimulatu azentu hori. Eta zure tokian, Mikel esango nuke, euskaraz. Badakizu udaletxera joaten?

Arazorik ez, Javier. Ditsiko gara.



Ezta, Mikel?...



Leitzaran (Nafarroa).



Heldu gara...
Itxaron hor,
motorra piztuta
eta atea
zabalik.



Dena ondo. Zer ordutan
irtengo zara, Javier?



Ez dakit, deituko dizuet.



Gaurko
posta.





Eta bomba beste inork baino
lehen topatu.






Dena garbi.
Lehergailurik ez...












Haren deiazen
Zain.



Eta...
luzerako
izango da?

